

# CRISPIJANA / KRISPIÑANA

– ARABA / ÁLAVA –

Gasteiz udalerriaren barruko herri eta kontzeju txiki hau Zadorra ibaiaren ertzean dago, eta Krispiñana/Crispijana izen bikoitza darabil. Jundizko industrialdearen zati txiki bat, ipar-mendebaldekoa, Krispiñanako lurretan dago. Gasteizko hirigunearen mendebaldera dago, 6 km-ra, Zadorra ibaiaren eta Madril-Irun trenbidearen artean. Gasteiztik A-3302 errepidetik irten ondoren, A-4345etik helduko gara herrira.

Krispiñana berandu azaltzen da erregistro historikoetan, Donemiliagako *Reja* deritzon katalogoan ez baita ageri, *Langrares* (Langraiz) barrutiko beste herri guztiak aipatzen diren arren. Garai hartan herri hustua zela eta geroagoko mendeetan populatu zela pentsa daiteke; edo, bestela, zerbaitengatik, erregistroan jasotzea ahaztu zitzaiera. 1332. urtean, Gasteizko hiribilduaren jurisdikzioan sartu zen, eta bertan jarraitu du ordudanik, Gasteizko ermandadeko leku gisa, hasieran, eta kontzeju legez, ondoren.

Este pequeño pueblo y concejo, perteneciente al municipio de Vitoria-Gasteiz, se sitúa en la ribera del río Zadorra y comparte la doble denominación de Crispijana/Krispiñana. Un reducido sector del polígono industrial de Jundiz, en la parte noroeste, está ubicado en terrenos de pueblo. La localidad de Crispijana dista 6 km al oeste del centro de la capital alavesa, ocupando el espacio situado entre el río Zadorra y la línea férrea Madrid-Irún. Se llega al pueblo por la carretera A-4345, tras abandonar Vitoria-Gasteiz por la A-3302.

Crispijana aparece tarde en los registros históricos, ya que no es una de las localidades mencionadas en la Reja de San Millán, donde se le obvia, a pesar de que aparecen todas las localidades vecinas en el alfoz de Langrares. Cabe pensar que por aquel entonces formaba un mortuorio deshabitado, que fue poblado en los siglos posteriores; o bien que fue olvidado por alguna razón en el registro. En el año 1332 se incorpora a la jurisdicción de la villa de Vitoria, a la que ha pertenecido desde entonces como lugar de la hermandad de Vitoria, y posteriormente como concejo.

## *San Joan Ante Portam Latinam eliza* *Iglesia de San Juan ante Portam Latinam*

**B**URIALDEAREN KANPOALDEAN, aztarna erromaniko bakarra geratzen da, baina aztarna iradokitzailea da, hala ere, bere itxura arkaikoagatik. Leihate txiki bat da, oso antzinakoa, erdi-puntuko arku eta oso dobela higuak dituena. Oso lorrindurik daude, halaber, leiho-zangoen alboetan, zutabe gisa, dauden bi baketoien kapitelak.

Testua eta argazkiak: MPGH

**E**N EL EXTERIOR de la cabecera queda un único vestigio románico, pero sugerente por su aspecto arcaico. Se trata de un pequeño ventanal, muy primitivo, de arco de medio punto con las dovelas muy desgastadas. También muy deteriorados se encuentran los capiteles de los dos baquetones que, a modo de columnas, flanquean las jambas.

Texto y fotos: MPGH

### *Bibliografía / Bibliografía*

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 293; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, p. 322, fig. 453.



*Ikuspegi orokorra / Vista general*

*Burualdeko leihoa / Ventana de la cabecera*

